

Hainbat ekintza Areatza Udan programearen barruan

12. orrialdea

Bizkaiko Kopako Kadete lasterketea San Kristobalen

Garagarriaren 9an jokatu da. Igorretik urtengo da 10:00etan eta Arratiatik ibilbidea egin ostean, San Kristobalen amaituko da. Larogei txirrindulari inguruk hartuko dabe parte; tartean, Arratiako Ziklista Elkarteko lauk. **10. orrialdea**



Lisette Cintadok brontzea ekarri dau Sofiako taekwondo jokoetatik

11. orrialdea

Kaotiko eta Pakean utzi arte taldeek joko dabe Lemoako jaietan

Lau egunetako jai egitaraua prestatu dabe Lemoan saninazioak ospatuteko.

Txupina barikuan bota arren, eguenean hasiko dira jaie-tako ekintzak. Kirol eguna izango da eguna; barikua, mozo-rra eguna; zapatua, gastronomia eguna eta San Inazio egunean bertan emongo jakie amaierara jaiei.

Bariku gauean, Pakean utzi arte taldearen aurretik, Galazota taldeak joko dau eta ostean, erromeria egongo da Akerbeltz taldeagaz. Hurrengo gauean, Mconak eta Kaotiko taldeak izango dira Elizondon eta ostean, DJ Burruntzali eta Marmita Session. **5. orrialdea**



Ehun urte beteko ditu Egiriñaoko aterpeak eta Eleuterio Goikoetxea omenduko dabe



Garagarriaren 9an beteko dira 100 urteak. Egun horretan, Zeanuriko plazatik Egiriñaora ibilaldia antolatu dabe. Hilaren 12an, Egiriñaon, Goikoetxeari eta berak sortutako aterpeari buruzko oroitzapen ekitaldi bat egongo da eta plaka oroigarri bat ipiniko da. Bertaratutakoek *Eleuterioren txabolan* kantua kantauko dabe ostean. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Haltzamendiko tontorra argiztauko dabe arratiarrek

Garagarriaren 2ko gauean, Pirinioak argiztauko dabez autodeterminazio eskubide eske herritarrek, Gure Eskuk antolatutako ekimenagaz. Arratiarrek, 17:30ean batuko dira Ortzaizen, alkarregaz Haltzamendi mendira igoteko. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Metalgintza eta Cementos-eko beharginak mobilizazinoetan

Lan hitzarmenaren aldeko burrukan dagoz Bizkaiko metalgintza eta Cementos Lemona, patronalagaz adostasunik lortzean ez dabelako. Bizkaiko metalgintzeak, greba egin eban bagilaren 23an eta 30ean. Cementos Lemonan be lan-ixteak egitea ez dabe baztertzen. **7. orrialdea**

ARRATIA

Bisita gidatuak Gorbeia inguruko parajeetan

Gorbeia Turismok bisita gidatuak antolatu ditu Gorbeia inguruan udako hileetarako.

Areatzak uribildua, Dimako bitzita tradizionalaren iraunkortasuna, Ubideko antxinako kaltzadea, Zeanuriko Undurragako urtegia eta Zeberioko Ermitabarri dira Arratia, Ubide eta Zeberioko paraje interesgarrienak ezetuten emongo diranak. Orozko eta Otxandiotik be antolatu ditue bisitok.

Uda aprobetxauz, batez be bisitan datozenei, Gorbeia inguruko paraje naturalak eta kultura ondarea ezetuten emotea da helburua. Programa hau bagilean hasi zan eta urrietara arte luzatuko da. **6. orrialdea**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTS SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

EUSKAL HIZTEGI HISTORIKO-ETIMOLOGIKOA

Proposamen guztiz desbardina oingo honetan. Literatur kritike-tan kabida gitxi izaten dauan lan horreetako bat: eleberri, poesia edo saiakeratik kanpokoa. Ge-nero nagusietatik urrun dagoana, baina "euskerazele irakurleek" -euskaltzaleek bainoago- atsegi-nez leido du dabena. Azkenaldian argitaratu dan lan filologiko gar-rantzitsuenetakoa, *Euskararen Historia* (2018) liburuagaz ba-tera. Online irakurteko aukerea be bada, 2021ean sarean ipini eban-eta Euskaltzaindiak.

Euskal etimologiazale edo hizkuntzazaleentzako konsulta liburu. Berba askoren aspaldiko formak ezetuteko aukerea emoten deusku lan honek: herio <*e-lin-o; jakin <*e-da-kin, edota (h)

ibai <*hur-ban-i. Baina hori egin aurretik, forma horreetara ailege-tako bidea edo metodologia es-kainiko deusku liburuak. Horrez gain, beste euskal berba asko-ren jatorriaz argibideak emongo deuskuz, zehatz eta argi.

Etimologiak zer diran, euske-rearen ahaidetasun genetikoan hipotesiak, Mitxelenaren lana, Mitxelenaren ondoko lan il-doa, berba-familiak, etimologia txukunak egiteko arauak, erroak... Hainbat kontu teoriko biltzean ditu hiztegiak lehen 140 orrial-deetan, aditu zein hasibari ku-riosoentzat. Egun, euskerearen ikerketa lerro nagusia zertan dan ulertzeko aukerea izango dogu liburuaren hasierako zatian.

Ahalegin erraldoia, urte asko-

tako lanaren ondorioa. Hiztegia sortzea beti da erronka, baina hiztegi historiko-etimologiko ba-tek eskaintzen dauan informazio guztia biltzea oindino da erronka nekosoagoa. Sarrera bakotzak azalpen, lekukotasun eta adibide ugari biltzean ditu, baita berben jatorriaz -beharrezkoa danetan-proposamen posible guztiak bil-du be.

Konsulta liburu izateaz gaine-ra, edozein hiztegi lege, hizkun-tzaz gure jakin-mina asetzeko tresna bihurtuko da esku artean daukaguna. Euskaldun askok barruan daroagun hizkuntzalari haserreti eta amateur-ra -askotan euskerearen gaineko uste oke-rrerz bete- janzteko aukerea es-kaintzen deusku Joseba Lakarra,

Julen Manterola eta Iñaki Segu-rolaren lanak. Norberaren ebatzia da zelango lanez hornidu gura dauan gure hizkuntzearen gaine-ko ezagutzea. Argi dago holango lan mardul eta zehatzez hornidu-teak jakintza eta argia sustatzen dituala, hizkuntzeak lehen begi-bistan sarritan aritua eta aditua ez danari sortzean deusazan ilusino azaleko, tranpati eta faltsuak alde batera itxita.

Mikel Urkixo Aierdi



Joseba Lakarra, Julen Mante-rola eta Iñaki Seguro

Euskal Hiztegi Historiko-Eti-mologikoa

Euskaltzaindia, 2019

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 27tik garagarilaren 3ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 4tik 10era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 11tik 17ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 18tik 24ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea.*

arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30etan. Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus. Webgunea: www.begitu.eus. Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus. Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus. Erredakzino: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkine Zuluaga (Igorre). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituEus). Twitter: [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus) Instagram: [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (VI).
Kale berbakunea sustatu guran

Aditz bat hartu eta beragaz alkarriketa bat sortuko dogu.

- Joan:**
- Nora hoa?
 - Dendara ñoak. Hi nora hoa ba?
 - Ni Zeberiora ñoana.
 - Ba dendara laguntan badostek, gero heugaz joango nok Zeberiora.
 - Holan egingo june orduan!!
- Nora zoaz?
- Dendara noa. Zu nora zoaz ba?
 - Ni Zeberiora noa.
 - Ba dendara laguntan badeustazu, gero zugaz joango naz Zeberiora.
 - Holan egingo dogu orduan!!

ERETXIA

Errespetua,
behintzat

Goizeko 8retan lanerako bidean talde bi oso desbardinaren lekuko izateko aukerea izaten dot egunero. Bata bestetik bost minutura topetan dodaz.

Lehenengoa 5 gizonak osotuten dabe; zutunik, serio beti. Ez dodaz sekula euren arteko alkarriketan ikusi, nahiz eta lau bikoteka egon, eta bat solte. 55-65 urte artekoak, bisera eta maskarilleagaz beti.

Besteak 6-7 izaten dira. Gizon eta andra gazte samarrak, hizketa animatuan beti eta poz arpegiaz alkarrieri so. Kirol erropea edo *casual* itxurakoagaz, eserita zein zutunik, nahierara.

Espaloiaaren bazter-bazterrean lehenengoak, ahalik eta lekuri gehien ixten oinezkoai, ikusezin bihurtzeko asmotan, euren ez dan lekuan lez, ahalik eta gitxien okupau guran.

Parkearen erdian geldirik zein mobimentuan, besteak, euren, bertatik pasetan garanoi jaramonik egin barik, asko okupetan, lekuaren jaube balira lez.

Batzuk, adi, zerbaiten zain. Besteak ardura barik eta jostari.

Bat-batean 5 gizonak mobidu egiten dira eta beste aldeko espaloira doaz. Hurreko supermerkadutik iraungita edo egoera ez onean dagozan produktuak dakarrez karroetan botetako. Produktu piloan arakatu eta aldean daroazen motxila eta boltsak beteten ditue.

Parkekoen artean txitean-pitean batek galapaliditxo bat egiten dau bere txakurrari errieta eginez urrun joan ez daiten; ondoren taldekoei txakurraren anekdotaren bat kontetan deutse, eta danak jarraitzen deusie berearenak be kontaturik. Bistan da txakur guztiak pasau dirala pelukeriatik, bateri rastak be egin deusiez.

Zenbat lehenen egiten dabe lana gizonak eta badoaz burumakur, bisera eta maskarilleagaz lotsea ezkutaturik. Pobreziaren lotsea.



MAITE ARTABE
URKIRI

Enplegadu publikoa

Ez jata suertau besteak joaten ikustea, baina imajinatzen dodaz bihar arte irribarretsuetan eta txera maitekorak eginez bata bestearen txakurra agurtzerakoan. Erdi-mailakoen jentetasuna.

Ez da harritzekoa nik egunero egoera desbardin bi horreekaz topo egitea ze aurtengo txosten baten irakurri dot Euskadiko erki-degoan biztanleriaren %16,3 dagoala gizarte-bazterketa egoeran, 6 personatik 1; horrek dakarren gizarte arrakaleagaz.

Pobreak geure artean daukaguz, hur, baina ikusiez izaten ahalegintzen dira, lotsa emoten dau pobrea zarala esateak be; aporofobiak marketan dau-ta bestean begiradea, baita legearena be.

Aporofobia berbea erabilten dau Adela Cortinak errekursorik bakoek sortzean daben bildur, ezinikusi eta gitxiespena izentatzeko.

Ni baino adituagoek jakingo dabe zer egin egoerearen aurrean, nik neuk zer esan be ez dakit eta, hainbeste faktore dagoz ze; baina gizarte arrakala hori seinalau bai, egin gura dot, eta behintzat errecurso bakoakaz errespetu begirada izaten ahalegindu, ez fobiarena ez karidadearena.

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Kukuak ku-ku, ku-ku; guk abaniku eta aparkaleku

Bertan behera itxitako gera-
lekua, perfumea, krokodi-
loa ohe azpian eta oinutsik
jauregian. Horreek dira bat-batean
burura etorritako irudiak, sensazi-
noak... Irudimenari zirrikitutxo bat
itxiz ipuin ikaragarria sortuko leukie
Joseba Sarrionandiak edo Eider
Rodriguez euskal idazleek, edota
bertso hunkigarria Maialen Lujan-
biok, besteak beste.

Uda heltzean ume-gazteen esko-
la sasoia amaitutzat emoten da, eta
oporraldia hasteaz batera urtean
zehar lagundu deuskuen adinekoei
(aitita-amamei gehienetan) be "jai"
emoten deutsegu, gu guztiok urta-
ro horretaz disfrutetan dogun bitar-
tean, nagusiak bazter baten itxen
doguz, gure planetatik zenbat eta
urrunago, orduan eta hobe.

Bertan behera itxitako geraleku
bateko eserleku erdi ustelduan,
etorri-joaneko perfumeak letxe,
behin gozo, behin garratz, gure

hondartza zein mendiko abentu-
raz gozatu ezin daiketan ohe azpiko
krokodiloak letxe, bildurturik, triste,
artega; urte osoan zehar oinetako
erosoak erabilitako norbere jau-
regian oinutsik, errege-erreginak
izatetik bufoi izatera, ortozik.

Gure herrietan badago modurik
arisku eta zaurgarritasun faktoreak
identifiketako? Adineko biztanle
dezente bizi da gure artean eta zati
handi baten euren bizi kalidadea
ondoizate emozionalean datza
(guztiona moduan). Hurbilekoek
emon ezean, zer egin leikie uda-
lak edota agintariak? Egonkortasun
ekonomikoaz harago doan arazoa
dogu begi bistan, zahartzaroaren ka-
lidadea dalako ziurtatu eta bermatu
beharrekoa. Bakardadea leuntzeko
eta zaurgarritasunari ospa egiteko
ze auzolan egin beharko litzateke?
Gizarte sarea zabaldu/hedatu be-
harra da bururatzen jatan idea baka-
rra, nork lagundu izan behar dauana
helburutzat. Buruzagiak horretarako
prest dagoz? Eta gu geu?

Kukuen kantatzean, euri eta
eguzki dino esakera batek. Euria
beharrezkoa da lehenengo
eta eguzkia gero, haziak erne,
bedarrak hazi eta arbolak loratu
ahal izateko. Hori berori da gure
adinekoek behar dabena, ureztatu
berotasunaren berotasunaz dana
izan dakien koloretsua, alaia, bizia.

Ikusi nekez egiten bada be
latineko *cuculus* hau, entzun
bai. Entzun deiegun ba gure
bizimodua erraztu egin/egiten
deuskuen guztiei, entzun deiegun
hurrengo kukua bizipozez
hartu daien, ez depresinoaz, ez
saminez, ez mingostasunez...

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Zer ote naiz?

Banago, banaiz
ostera, jakin badakit zer
naizen?

Nondik nator
zergatik
zertarako
axola al du horrek...

Banintzen, banaiz
nire istorioa
nire amaren alaba
bikia
aitaren gisakoa
aitaren kuttuna
errebeldetarikaduna
arrebahalduna
neskato sentibera
irribarre distiratsuen
iheskorra
banderaz zuena leialtasuna.

Naiz, banintzelako
haizearen ziztu arina
hitzen ibiltaria

bihotzeko taupada bizia
sekretuen zaindaria
ametssetako zelataria
oinatzak beti irmo norabidean
bizitzaz gotzatzeko bidean.

Banaiz izan nintzelako orobat
beldurraren amildegian
hego barik ezerezero erorian
minaren lorrin gordinenean
munduaren aurrean biluzik
lurrean ezin altxaturik
iraunkortasuna dastatu nahian
oinazea ezin ezkutatu
iluntasunaren atarian.

Naizela diot
baina eztaikit
ez dut hausnartzen
ez dut hortaz pentsatzen
naizena erraiaetan
senti dut
argia eta iluntasuna
algara eta negarra

indarra, ahultasuna
poza zein mina
osotasuna.

Banaiz hemen eta orain
unea naiz
instant hau
begiak itxi eta zabaldu bitartean
gertatu dena
segunduen joan etorria
arnasaren etena
naiz amodioaren izpia
amorraren hagina
ilunabarraren epela
beldurraren jardina
muxuen ezia
erruaren lagina
zure antzekoa eta ezberdina
naiz, hemen eta orain dagoena
apaltasunez azalekoena
zuk ezagutzen duzun hori eta hain
ezagutezina.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-
duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu
egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Urtero lez, gure Argazki Lehiaketan parte hartu eta zuen bi-
daietan ateratako argazkiak, irakurle guztiakaz konpartiduten
konbidatzen zaitue BEGITUk. Irabazleentzat sariak egongo dira.

Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
- 2.- Gaia: Argazkiak 2022ko oporretan egindakoak izango dira.
- 3.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera
diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4.- Nora bialdu: Argazkiak begitu@begitu.eus helbidera bialdu behar dira.
- 5.- Aurkezteko epea: 2022ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren
25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko
zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan
gura argitaratutako horreek diranik irabazleak.
- 6.- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7.- Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian
batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenegian argitaratuko da.
- 8.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko
landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaiak egoki jo ezker.
- 9.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenek honeek oina-
rriok onartuten dabezala esan gura dau.



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratiarrek Haltzamendiko tontorra argiztauko dabe



Erredakzinoa

Arratiako Gure Esku taldearen arabera, hirurogei arratiar baino gehiago alkartuko dira garagarriaren 2ko astegoienean Ipar Euskal Herrian, Pirinioak argiztatzeko ekimenean parte hartu eta Katalunia eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Arratiarrek, Bidarrai (Nafarroa Beherea) herritik hur dagoan Haltzamendi (813 metro) mendiaren tontorra argiztauko dabe. Inguruko kanpin eta herrietan hartuko dabe ostatu eta garagarriaren 2an, 17:30ean Ortzaizen alkartuko dira eleizaren ondoan dagoan frontoian alkarre-gaz igoteko.

Gaueko 21:00etan tontorrean

egon behar da prest. Gau horretan, Katalunia eta Euskal Herriko herritarrek 300 gailurretik gora argiztauko dabez Pirinio osoan zehar, farol berezi eta linter-nakaz, argi-lerro bat osatuteko. 22:00etan biztuko dira argiak. Indar handiko farol berezi bat erabiliko da tortor bakotxean, argia 40 kilometroko distantziatik ikusteko aukerea emoten dau-na. "Ekimen erraldoi eta hunki-garri honetara, arratiarrok ilusinoz beteta goaz. Katalunia eta Euskal Herria libre eta burujau-bea gura doguz herritarrok gure etorkizuna erabagiteko, eta herritarren bo-rondatea entzun eta errespetau daiten eskatuteko" azaldu de-utsie BEGITURI Arratiako Gure Esku taldekoek.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beliza daga jaitz

- Salmentan zein aldatu
- Lurrik (erakutsi, lantat, basat...)
- Etxeak (pintak, baxerak, etxeak...)
- Garaiek
- Lurrik komertzialak
- Pabilioak
- Balonak

Berri daga proiektu

- Irakurri berriak erakutsi
- Etxeak
- Arkitekto-proiektuak
- Bere diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia

Kili-Kili

Amagie eta Puntuko

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)

Tel: 94 673 43 81

ASESORÍA

Gorbeialde

Juridikoa - Fisikoa - Lanak - Kontabilitate

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza

Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82

E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe

OPTICA OPTICA

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

LEMOA

Kontzertuek eta erromeriek animauko dabez bariku eta zapatuko gauak

Aurten, garagarriaren 29an arrastiko zazpiretan botako dabe txupina jaiei hasikerea emoteko eta, txupinaren ostean, Mozorro Lehiaketan parte hartuko daben guztiak kalejiran joango dira Elizondoraino. Jaiak San Inazio egunean, hilak 31, 22:00ak aldera amaituko dira, Garsu, Lemoako jaietako maskotea errez. Bitartean, ondo pasetako aukera ugari egongo da.



Erredakzinoa

Garagarriak 28, eguna
Kirol eguna eta herri afaria

17:00etan, 15 urtetik behe-rakoen Futbito Txapelketearen finala kiroldegian.
18:00etan, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketearen finala kiroldegian.
19:00etan, Eskupelota Txapelketearen finala kiroldegian.
19:00etan, Mozorro Lehiaketan parte hartzeako izen emotea kiroldegian.
19:30ean, Padel Txapelketearen finala kiroldegian.
21:30ean, herri afaria txosnagu-nean.

Garagarriak 29, barikua
Mozorro eguna. Gaia: marraz-ki bizidunak

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.
19:00etan, jaietako hasikerako txupina eta Jaietako Kartel Lehiaketaren sari banaketea udaletxeko plazan. Saioa Elejabarrieta Amorrortu Lemoako alkateak emongo deutse hasikerea jaiei. Mozorro Lehiaketan parte hartu daben guztiak kalejiran joango dira Elizondoraino eta bertan izango da mozorroen balorazioa

eta sari banaketea.
21:00etan, kuadrillen afaria kiroldegian. Afaria 18 urtetik behe-rakoentzat izango da.
Txartelak garagarriaren 12a bai-no lehen erosi behar dira udaletxean; euro bitan. Menua: oilasko errea, patatak eta izozkia. Kuadri-lla bakotxeko guraso batek afa-rian zaintza egiteko ardurea hartu beharko dau txartelak hartzean.
22:00etan, Mariskal DeJai Kiroldegian.
23:00etan, kontzertuak eta erromeria Elizondon. Galazota, Pakean utzi arte Hertzaian-en tributo taldea eta Akerbeltz erro-meria taldea.

Garagarriak 30, zapatua
Gastronomia eguna

11:00etatik 14:00ak arte, umeentzako jolas parkea esko-lako patioan.
13:30ean, apar jaia eskolako pa-tioan.
13:30ean, Paella, Gisadu eta Tortilla Lehiaketetako aurkezpena eskolako patioan.
Ondoren, herri bazkaria. Bazka-rirako mahaia eta aulkia Jai Batzordeak ipiniko ditu. Jateko tresnak, ogia eta edariak norbere kontura. Txartelak garagarriaren 12a baino lehen hartu behar dira

udaletxean, euro bitan. Bazkalos-tean mahaia batu danon artean.
17:00etan, Elkartrukeko gazteek antolatutako tailerrak eta jolasak eskolako patioan.
17:00etan, jubiladu alkarteak an-tolatuta, Mus eta Briska Txapelke-tak jubiladuen tabernan.
21:00etan, ume eta nagusien Playback Lehiaketea Elizondon. Parte hartzeako izen emotea 17:00etatik 18:00etara kirolde-gian.
22:00etan, kontzertuak Elizon-don. Mconak, Kaotiko, Djs Bu-rrunztzali "...eta ez ditela manboa itzali" Marmita Session.
Goizaldean pikoteoa Elizondon.
02:30ean eta 05:00etan, Arra-tiako herrietara bueltetako auto-busa Correosetik.

Garagarriak 31, domekea
San Inazio eguna

11:30ean, Artisautza Azokea Atxeta taberna ondoko plazan.
12:00etan, mezea San Inazio ba-seleizan. Ondoren, Durundibarri Dantza Taldearen ekitaldia San Inazio plazan. Baserritar jantzita doazenei taloa eskuratzeko txar-tela emongo jakie.
18:00etan, DJ Kaktus "Euskeraz dantzatu nahi dut" San Inazio plazan.
18:00etan, Igel Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat. Izen emotea 18:00etatik 18:30era San Inazio plazan.
18:30ean, Igel Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat. Izen emotea 18:30etik 19:00etara San Inazio plazan.
19:00etan, Bola Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat. Izen emotea 19:00etatik 19:30era San Inazio plazan.
19:30ean, Bola Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat. Izen emotea 19:30etik 20:00etara San Inazio plazan.
19:00etan, txosnek antolatuta emonaldia txosnagunean.
19:00etan, Eusko Labela daukan oilasko pintxo dastaketea txos-nagunean. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasotako dirua Basoa proiektuarentzat izango da.
22:00etan, Garsu erre. Jaien amaiera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Auzune ugaritan ospatuko dira jaiak hileon

Garagarrilean Arratiako auzune eta ermita ugaritan ospatzen ditue jaiak.

Erredakzinoa

Izan be, santomasak, sankristo-balak, santamañeak, madalenak, santiagoak, santaanak eta sanina-zioak ospatuten dira oingo hilean eta izenpe horreetako ermiten inguruan ez da faltauko trikitixa soinu edo-eta barauskarririk pa-troiaren egunean edo aurreko edo osteko astegoienean.

Hilaren 2an ospatuko dabez Areatzako Ospitalosten santomasak. Eguerdiko 12:00etan mezea egongo da eta iluntzean, 20:00etan, parrilladea. Hilaren 10ean, San Kristobal eguna da eta Igorreko izen bereko auzunean, hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe.

Lemoako Tallerreta eta Lemorietako jaiak, hilaren 16an ospatuko ditue aurten, musikea eta oilasko janagaz. Santa Marina edo Santamañe eguna 18an da eta Dimako Bargondian eta Ar-teako ermitetan mezea egongo da. Maria Madalenaren eguna, hilaren 22an da eta Dimako Lamindaon eta Ubiden jaiak izango dira. Ubiden herri mailako jaiak dira eta erromeriaz gainera, Deabru Beltzak eta mariatxiak egongo dira jai giroa ipinten. Zea-nuriko Ipiñaburun Santiago eta Santa Ana egunak ospatuko di-tue, mezeagaz. Santiagoak, hilak 25, Artean, Diman eta Lemoako



Arrañon be ospatuko dabez. San Inazio egunean, Bizkaia osoan Gorbeiara igoteko ohiturea dago eta jai giroa ez da faltauko ezta mendian be.

San Kristobal (Igorre)
Garagarriak 8, barikua
20:30ean, jaien hasikerako txupina. Ondoren pintxo-potea.

Garagarriak 9, zapatua
10:00etan, Arratia Ziklista Elkar-teak antolatutako Kadete mailako lasterketea. Urtekerea Igorren eta amaierara 11:30 inguruan San Kristobalen.
12:30ean, Paella Txapelketan izen emotea.
13:00etan, Igel Txapelketea.
14:30ean, paellen aurkezpena.
18:00etan, Tortilla Txapelkete-rako izen emotea.
20:30ean, tortillen aurkezpena.
23:30ean, erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Garagarriak 10, domekea
12:00etan, mezea.
13:00etan, azkolariak: Julen Men-dieta eta Xabier Garcia "Utxu".

Tallerreta eta Lemorieta (Lemoa)
Garagarriak 16, zapatua
12:00etan, txupinazoa Atutxan eta kalejirea auzotik.
15:00etan, bazkaria Cementose-ko etxeetan.
17:30ean, kontzertua: Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek.
21:00etan, DJ-a Bikandi tabernan. Amaieran oilaskoak erre.

Madalena Ubide
Garagarriak 22, barikua
12:00etan, Tortilla Txapelketea.
17:00etan, umeentzako jolasak.
18:00etan, sardinak eta txokolata.
19:30ean, Los Gavilanes mariatxiak.
21:00etan, Deabru Beltzak-en ikuskizuna.
22:00etan, erromeria Modestogaz.

ZEBERIO

Udaletxean eta Kultur Etxean, eguzki-paneletako energia erabilten hasi dira

Erredakzinoa

Zeberioko Udalak eguzki panelak ipini ditu udaletxe eta Kultur Etxeko teilatuetan, energia hori erabilteko. Bagilaren 17an ipini ziran martxan. Helburua, CO²rik isuri ez, eta energia jasangarria erabiltea da. Panelok ipinteko, teila desegokia zala kon-turatu ziran eta teilatuen isurialdi bi konpondu ebezan teilak aldatuta.
Instalazino horreen ezaugarri nagusia gehieneko sorkuntza-puntua KW orduko kostua ga-restiagoa dan ordu tarteagaz bat datorrela da. Gainera, KWak eta panelek sortutako potentzia zu-zenean monitorizau daiteke, sare elektriko konsumoa ezetuz.
Udaletxeko teilatuan 15,80 kwko potentzia produziduko da-ben 40 panel ipini ditue, 20 pa-

neleko instalazino bi, eta holan, Karlos Idirin alkatearen arabera, "eraikineko beharrianak asetzeko lain" energia produziduko da.
Kultur Etxean barriz, 9,48 kwko potentzia sortuko dabenean 24 eguzki-panel ipini ditue eta litio bateriak energia gordetzeko,

arrasti-iluntzean erabilten diralako Kultur Etxeko lokalak.
Instalazino honeen kostua 47.810,86 eurokoa izan da (BEZa barne) baina 39.203,17 eurotan esleitu zan eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEEk) 26.631,80 euroko dirulaguntzea emon dau.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Udan hilean behin aterako da BEGITU

1ekoa izango da. Urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU.

Erredakzinoa

BEGITU hamabostekariak, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, beharginek oporrak hartu ahal izateko. Hau da, garagarrilean eta abuztuan, hile bakoitzean, zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Aurten be ho-lan izango da, eta garagarriaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren



ARATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bisita gidatuak antolatu ditu Gorbeia Turismok hurrengo hileetarako



Ubide.

Erredakzinoa

Areatzako uribildua, Dimako bizi-tza tradizionalaren iraunkortasuna, Ubideko antxinako kaltzadea, Zea-nuriko Undurragako urtegia eta Zeberioko altxor dan Ermitabarrira bisita gidatuak egiteko hainbat aukera egongo dira hurrengo hileetan. Izena 94 612 26 95 te-lefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo <https://www.basquemountains.eus/ibildide-gidatuak-gorbeia2022> estekan emon daiteke.
Areatzako bisita gidatuak gara-garriaren 17an, abuztuaren 13an eta urri lehenengoaren 18an izango dira, goizeko 11:00etan; Dimakoak, garagarriaren 30ean, urri lehenengoaren 4an eta urri bigarrenaren 2an, 11:00etan. Ubideko kaltzadearen nondik norakoak jakiteko garagarriaren 23an, abuztuaren 20an eta urri

lehenengoaren 24an egongo da aukerea, 10:00etan. Zeanurin, garagarriaren 2an, abuztuaren 27an eta urri bigarrenaren 15ean, 11:00etan, dagoz programauta urtegiaren inguruko ibilalditxoak. Zeberion, bagilaren 26an egin eben Ermitabarrira bisitea eta urri lehenengoaren 3an, 11:30ean egongo da beste aukera bat.

Orozko eta Otxandio
Orozko eta Otxandio inguruak ezetuteko bisitak be antolatu dabez. Orozkon, Zubiaurretik Iztazako pagadira ibilaldia egiteko aukerea egon zan bagilaren 16an, 09:30ean, eta Atxulora Iri-goititik urri lehenengoaren 17an, 09:30ean egongo da.
Otxandio mendiko bizikletan ezetuteko urtekerak antolatu di-tue, garagarriaren 9an, abuztuaren 6an eta urri lehenengoaren 10ean, 11:00etan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Metaleko langileek greba egin dabe lan hitzarmenaren aldeko burrukan

Erredakzinoa

Bagilaren 23an eta 30ean greba egin eben Bizkaiko metaleko beharginek metalgintzako sindikatu guztiek deituta eta garagarriaren 1erako be grebara deituta dagoz. Lehenengo grebak Bizkaian, jarraipen zabala izan ebal balorau eban LABek, erantzuna, "masi-boa" izan zan ELAren arabera eta %80-85aren inguruan estimau eban CCOOK.

Arratian datu zehatzik ez dagoala baina jarraipen handia euki ebal, "batez be, tailer txikerretan" azaldu deutsie BEGITURI LABetik. Tailer horreetan, ez dabe eukiten ordezkari sindikalik, ezta euren hitzarmen propioa egiteko ahalmenik be. Horregaitik izan ziran gehien inplikau ziranak LAB sindikatuaren ustez; hau da, Bizkaiko lan hitzarmenean adostutakoak zuzenean eragiten deuselako. Arratian, metalgintzea pisua

galtzean doa. "Metala Arratian ez da lehen zana. 2019an baino 160 bat behargin gitxiago dagoz eta lantegi batzuk zarratu egin dabez" salatu dau LABek. Horregaitik, mobilizazinoak inoz baino beharrezkoagoak dirala uste dabe sindikatuan.

Lan baldintzak okertuten

Bizkaiko metalgintzako lan hitzarmenaren negoziazioan beharginen eta patronalaren jarkerak oso urrun dagozala eta lan baldintzak okertuten dabizala salatu dabe sindikatuetatik. Hamazazpi puntuko eskaerea eginda deukatsie sindikatuak patronalari, baina soldata igoreari jagokonean baino ez dabe erantzunik jaso. Soldata igoereari jagokonean be, KPIaren igoerara hurreratu be ez da egiten patronalaren eskaintza: igazko KPIa %6,5koa izan zan, eta patronalak %2,5eko igoerea eskaini dau.

ARTEA

Astuiko errekatxoko lanak hasi dira

Erredakzinoa

Lanak abuztuaren amaiera arte luzatuko dira. Hori dala-ta, Areatzara doan errepidea moztuta dago eta Astuibekoa kaletik desbideratu da trafikoa. Lanon helburua uriolak prebenidutea da.

Euriteak diranean puntu horretan errekatxoak gainezka egiten dauala ikusita, Udalak Ura Uraren Euskal Agentziara jo eban, konponbide bila. "Hor, Z bat bezala egiten dau errekatxoak. Eta harriak eta ur asko ekarten dauanean, zarratu be egiten da uraren bidea eta gero gainezka egin eta etxe batzuetan be sartzean da" azaldu deutso BEGITURI Alberto



Intxaurraga Arteako alkateak.

Hori ez gertatuteko, errekatxoa "naturalizau" egin behar da, errekearen arroari sakonera handiagoa emonda. Karkaban, lurra eta landareak ipiniko dira. Errekatxoaren zati bat agirian geratuko da eta beste zatia kamino azpian, eta honek emongo dau lanik handiena. Izan be, kamino azpiko zati horretan dagoz herriko instalazino guztiak eta Arratiako batzuk: ur hornidura eta saneamentua, gasa eta telekomunikazinoak. Nondik pasau behar diran instalazinoak zehazten dauan proiektua eginda dagoala baina horrek denpora asko eroango dauala dino alkateak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Lemoan konzentrazinoa egin eben osasun publikoaren defentsan

Erredakzinoa

Osasun arloko profesionalek, herritarrek eta gizarte mobimentuek protestak egin dabez Osakidetza ez desegiteko eta lehen mailako arretaren egoera larria salatuteko. Holan, bagilaren 22an alkarretaratzeak egon ziran Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako osasun zentroen aurrean, tartean, Lemoan; eta 26an, SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak deituta, manifestazinoa egin zan Bilbon. Bertan, milaka lagunek hartu eben parte.

Egoerea zein larria dan argi geratu zan bagilaren 8an Gotzone Sagardui osasun sailburuak "beharrezkoa da aldaketa kultural bat" eta Osakidetzaeren eredu aldaketeak, erabiltzaile eta osasun profesionalen "mobikortasun handiagoo" ekarriko dauala esan ebanean. Hori dala-ta, Euskal Herriko gehiengo sindikalak, mobilizazinoak deitu ebazan "Osakidetza salba dezagun" lelopean.



Lemoan konzentrazinoa.

Izan be, aldaketa horreek "pribatizazinoaren alde, zerbitzu publikoen aurka eta osasun aseguru pribaduen negoziaren" alde dagozala uste dabe sindikatuak. Sagarduiren dimisinoa be eskatu zan manifestazinoan.

Hogetamar lagun inguru, osasun profesionalak eta herritarrak, batu ziran Lemoan "Lehen arretaren alde! osasun publikoaren defentsan" inoan pankartearen atzean.

Zeberion medikurik ez udan

Zeberioiko EH Bilduk salatu dau, garagarrilean eta abuztuan ez dala medikurik egongo herrian. Erizaina bakarrik egongo da. Egoera hau salatu eta "Osakidetzaeren desegitearen aurka" bagilaren 29an konzentrazinoa egin eben hainbat herritarrek udaletxe aurrean.

Osasun Sailak, Lehen Mailako Arretako zentro guztietan medikuen presentzia bermatzea ezinezkotzat jo dauala adierazo dau Zeberioiko Udalak. Zeberio izango da ebatzi horrek eragina eukiko dauan herrietako bat eta medikuaren hitzorduak Ugaon egingo dira. Horretarako, taxi zerbitzua doban eskaini dau Udalak, astelehenetik barikura, 08:00etatik 14:00etara. 607 907 685 da taxiaren telefonoa.

LEMOA

Cementos Lemonako beharginak mobilizetan hasi dira hitzarmenaren alde

Erredakzinoa

Cementos Lemonan hitzarmen duin baten aldeko mobilizazinoak hasi dira, hitzarmenaren indarraldia amaitu eta sei hilabete pasau diranean. Izan be, enpreseak eta langileen ordezkariak ez dabe lortu euren arteko aldeak murriztea, eta egoera honen aurrean langileek mobilizazinoak egiteari ekin deutsie.

Mobilizazinoak hasieran lan orduetatik kanpo izango dira, baina beharrezkotzat jo ezker, lan-ixteak egiteko prest dagoz. "Langileak ez dagoz prest euren lanpostuak arriskuan ipini leikezan hitzarmen bat sinatuteko, ezta enpreseari malgutasun gehiago ahalbidetuko deusan derik zabaltzeko be" azaldu deutsie BEGITURI ohar baten. Izan be, atzen urteotan, behargin kopurua murriztu dabe Cementos Lemonan eta beharginen esanetan, enpreseak gaur egungo plantilla gehiegizkotzat jotzen dau.

Cementos Lemonako langileek euren enpleguaren defentsan atzerapausurik ez dabela onartuko adierazo dabe.

ZEBERIO

Antxinako kaltzada baten lauzak topau ditue

Erredakzinoa

Kaltzada Erreala nondik pasetan zan ezaguna zan, eta Udalak, errastuak topau eta errekupe- retara zuzendu ebazan lanak. Lanok emaitza emon dabe eta Ugartetik Etxebarrira doan bidean topau dabez kaltzada horren harri zabal originalak. Garbitu eta agirian itxiko dabez, jenteak ikusi dagiazan.

Kaltzadearen garrantziaz jaubetuta, errastuak bilatzea ebatzi eban Udalak. "1500ean baegoan kaltzada hori, Diputazinoko kaminoa 1822an-edo egin zan eta ordura arte kaltzada hori zan bide nagusia Ugaotik Arteara. Ugaon egiten eban bat Bilbotik Urduñara joian kaltzadeagaz eta Artean, Arratiatik Gasteizerantza

joianagaz" azaldu deutso BEGITURI Karlos Idirin Zeberioiko alkateak.

Lekua aspaldian garbitu barik egoan, sastrakaz beterik. "Hasi ginan lanak egiten, lurra ken-

tzean. Bageunkan susmoa, hor tramada baten egon leiela harria, lehengo kaltzadako harri originala, eta bai hor 20 metroren luzeran agertu da".

Ingurua garbitu eta bistan itxiko dira harriak, Juanjo Hidalgo arkeologoaren txostenean oinarritutako azalpenak emoten dabez panelakaz.



ELEUTERIO GOIKOETXEAREN TXABOLEAREN MENDEURRENA

Zeanurik Eleuterio Goikoetxea omenduko dau Egiriñaoko aterpearen (Gorbeia) mendeurrenean

Garagarilaren 9an, zapatuan, 100 urte beteko dira Eleuterio Goikoetxea zeanuriztarrak Egiriñaon (Gorbeia) mendiko aterpe-ostatua, "Eleuterioren txabolea", inaugurau ebanetik. Gertaera hori gogoratu eta inizatiba horren sortzailea omenduko dau Zeanuriko Udalak. Beste batzuen artean, gaur egun aterpearen jaubeak diran hiru mendi taldeen ordezkariak be parte hartuko dabe Egiriñaoko ekitaldian: Arnotegi Mendi Taldeak, Bilbao Alpino Clubak eta Juventus S. D.-k.



Eleuterioren txabolea inaugurau barri, 1922an. Ojangurenen argazkia.

Jon Urutxurtu

Mendeurrena ospatzeko egitarauaren zatirik handiena Egiriñaon egingo da aterpearen aurrean, 12:00etan hasita, baina goizeko 09:00etan Zeanuriko plazatik martxa gidatu bat abiatuko da Egiriñaora joateko, San Justoko bide tradizionaletik igoz. Ibilaldi honetan gura dauan guztiak parte hartu daike, eta erritmo norma-lean bi ordu eta erdian ibiltariak Egiriñaon egongo dira.

Eleuterio Goikoetxea: aitzindaria

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke.

XX. mendearen hasieran indar handia hartzean ebilen mendizale-letasuna, eta batez be uda aldean Euskal Herriko zein inguruko probintzietako tontorretara txango ugari antolatzen eben mendi alkarteek. Kirol honen izakera ez lehiakorra eta egoera fisikoa nahiz morala hobetzeko ariketa egokia zala azpimarratzen eben garai haretako idatzi batzuek.

Gorbeia mendiak erakarrita, Arratiako tranbia hartu eta Zeanurira edo Areatzara hurreratzen zan mendizale kopuruari errepara-uz, horren inguruan diru sarrera osagarriak eskuratzeko aukerea

ikusi eban Eleuterio Goikoetxeak, eta 1922ko garagarilaren 9an Euskal Herriko lehenengo mendiko ostatua izan zan aterpea zabaldu eban Egiriñaon, 1.200 metroko altueran, eta Gorbeia-ko kurutzetik hur. 1926an Mendi Federakundea argitaratzen hasi zan *Pyrenaica* aldizkariaren lehenengo alean honako iragarkia hau azaltzen zan: "*Refugio alpino del Gorbea (1.200 mts.) (pensionado completo). Primera hostería alpina en la Región Vasca. Dormitorios generales, literas sueltas y habitaciones separadas. Considerables rebajas en concurrencias numerosas. Domingos y festivos, misa en*

la gruta anexa. Pídanse catálogos: Propietario, Eleuterio Goicoechea. Ceanuri (Vizcaya)".

Gero eta mendizale gehiago etorren Gorbeia-ko parajeak ezetutera; gainera, era honetako urtekeretan parte hartzean eban jente asko goi mailakoa, posibilitade ekonomiko handiak eukazana zan. Mendizale horreei Gorbeian egunak igaroteko aukerea eskaintzen eutsen Eleuterioren aterpeak, bertan babesa, janaria eta ohea aurkituz. Federakundeko 1. bazkidea zan José P. De Duñabeitia y Menchacak zera inoan 1926an: "Gaur egun, Egiriñaoko aterpe-ostatuari esker, Gorbeian egun batzuk igarotea oso atsegi-



Txabolea 1924an handitua izan ondoren. Ojangurenen argazkia.

na eta eroso da, janaria eroateaz eta gaua pasatzeko lehorpea birlatzeaz ez zara arduratu behar eta".

1924an aterpe-ostatua barritau eta handitu egin eban Eleuteriok, eta Antonio Ferrer-ek 1927an argitaratutako *Nuestras Montañas* liburuan azaltzen dauanez, honako itxura eukan: "aterpeak kurutze itxura agertzen dau eta honako

jasan zituan eta Eleuterio bera, lehenengo kartzelaratua izan zan eta gero deserriratua; guztira zazpi urte igaro zituan herritik kanpo eta aterpeaz bere emaztea, Gillerma Uriarte, eta seme-alabak arduratu behar izan ziran.

1942an Espainiako Mendi Federakundeko euskal ordezkariak aterpea erosteko proposamena egin eutsan eta Eleuteriok onartu egin eban:



Gorbeia-ko artzainak Egiriñaoko aterpearen aurrean, 1934an. Felipe Manterolaren argazkia.



Mendizaleak Espainiako Mendi Federazioak 1942an Eleuteriok erositako zatia-aren aurrean. 1946ko argazkia.

zerbitzuak eskaintzen ditu: 16 ohe mendizaleentzat eta beste 4 Diputazinokoentzat, jantokia, suetea eta behekosua; hodi baten bitartez Lekuotzeko iturritik ekarritako ur edangarria eukiteaz gain, duxatzeko gela bat be badauka, komuna eta konketagaz".

Gerra Zibilean aterpeak kalteak

atal bi erosi eutsazan eta hirugarrenagaz Eleuterio bera geratu zan. Federakundek 10.000 pezeta ordaindu eutsazan, beste 12.000 erositako atalak egokitu eta barritatzeko erabili zituan eta 1943ko garagarilaren 11n berrinaugurau eban. Bien bitartean, Eleuteriok eta bere familiak geratu ziran

atalagaz jarraitu eben negozioan. Eleuterio 1956ko maiatzaren 1ean hil zan eta familiak 1957an Bilbao Alpino Club-ari saldu eutsan bere partea: Guillerma alargunak eta Begoñe alabak sinatu ebezan salmenta eskriturak.

Urte berean, 1957an, Federakundeak bere jaubetzapean zituan atal biak salgai jarri ebazan: bata Juventus S. D.-k erosi eutsan eta bestea Iberdrolak.

Beste sasoi baten Eleuterioren txabolea izan zanak gaur egun Egiriñaon jarraitzen dau, hiru zatitan banatuta, zati baktxaren jaubeak Arnotegi Mendi Taldea, Bilbao Alpino Club eta Juventus S. D. alkarteak izanik.

Zeanurin be ospetsua
 Mendizaleen artean ezezik, herri mailan be ospe handia izan eban

Eleuterioren aterpe-ostatuak—herrian "Eleuterioren txabolea" moduan ezagutua— eta horren lekuko da bere lagunek parranda giroan abesten eutsien eta oindino Zeanurin sano ezaguna dan kanta hau:

Zeanuritik baraurik urtetzen badezu Gorbeiera orduko damutuko jatzu

Damutuko jatzu damutuko jatzu Zeanuritik baraurik urtetzen badezu

Eleuterioren txabolan gosea franko izango da baita bere egarrie dalako gizon baragarrie Eleuterio, Eleuterio, Eleuterio, Eleuterioren txabola.

Eleuterio Goikoetxea: bere bizitzari buruzko zehetasun batzuk

Eleuterio Goikoetxea Goikuria, Zeanurin jaio zan 1888ko urri lehenengoaren 1ean Rotaetxe familiaren jaubetza zan Zubiate izeneko etxean eta hor bizi izan zan. Bere aita, Felipe Goikoe-txea, Rotaetxetarren adminis-tratzailea izan zan eta kargu hori aitarengandik heredau eban Eleuteriok. Eraikuntzan eta finka tasatzaile moduan be lan egiten eban eta Bilboko portuko obra batzordeko enplegadua be izan zan. Auzokideen artean persona errespetaua zan, eta sarritan ga-tazketan arbitraje edo tartekari lanak egiteko deitzean eutsien.

1915eko urtailaren 23an Gui-llerma Uriartegaz ezkondu zan eta 10 seme-alaba izan ebezan: Andoni, Iñaki, Karmele, Mikel, Arantza, Elisabete, Begoñe eta Jon Aingeru, beste bi jaio eta gi-txira hil egin ziran.

Sinismen erlijioso sakonak zi-tuan, Zeanuriko Junta de Acción Catolicako idazkaria izan zan, eta kultura munduan be mobiduten zan, Zeanuriko Dantzariak talde-ko ordezkaria izan zan.

EAJko kidea zan. 1931ko aprila-ren 12ko udal hauteskundeetan, boto gehien hartu zituan hauta-gaia izan zan eta Zeanuriko alka-tetza eskuratu eban: udalbatza osatzen eben ideologia desbar-dinetako hamar zinegotzietatik bederatzik bere aldeko botoa emon eben eta batek zuriz bozka-tu eban. Beraz, II. Errepublikako Zeanuriko lehen alkatea izan zan.

Gerra Zibilean, atxilotu eta La-rrinagako espetxean kartzelaratu eben. Hiru urte emon zituan han; ondoren, deserriratu egin eben eta Oñan (Burgos) egon zan. Guztira, zazpi urte emon zituan bere herritik kanpo.

Nazionalek poderea hartu ebe-nean, Gobernu Zibileko Comisión Provincial de Incautación de Bie-nes-era Zeanuriko Udaletik bial-du eben txostenean Eleuteriori buruzko holango datuak emon

ebezan: "(...) *durante el alzamiento desempeñó la alcaldía de Ceánuri y el cargo de Presidente del llama-do Comité de Defensa que llevaba anejo el de Jefe de Orden Público. Fue separatista siempre y director de esta tendencia en su pueblo y por ello bien visto y consideradí-simo en las altas esferas anties-pañolas. La solvencia económica del mismo conocida consiste en la propiedad de una especie de Hotel de verano llamada refugio sito en el monte Gorbea que se estima unas 5.000 pesetas y otras 20.000 que se le suponen en metálico y esto aparte de los rendimientos que le dieran sus cargos de admi-nistrador de todos los Rotaetxes y su empleo de la Junta de obras del Puerto de Bilbao*".

Eleuterio mendiko turis-moaren aitzindaritzat jo daiteke,

1922an Egiriñaon (Gorbeia) Eus-kal Herriko lehen mendiko ater-pe-ostatua inaugurau eban eta. Aterpeak euki eban harrera ona ikusiz, 1924an barrittau eta han-ditu egin eban. Aterpea eregiteko zein handitzeko Diputazioaren dirulaguntzak hartu zituan.

Aterpe-ostatutik hur ermita txiki bat be eregi eban —gaur egun be han dago—, Edurretako Amaren ermitea, udan dome-kean eta jai egunetan artzainek eta bisitariek mezea entzuteko aukerea izan eien. Zementuzko eraikin txiki bat da, kanoi-bobeda modukoa, mazela arrokatu ba-ten sartua. 3 x 2,25 metro neur-tzen dau eta sarrera atea ingura-tzen dauan burdinazko hesi txiki bategaz itxita dago.

1.956ko maiatzaren 1ean hil zan, 68 urte zituala, bihotzekoak jota.



Eleuterio Goikoetxea Gillerma Uriarte bere emazteagaz eta familiako beste kide batzukaz. 1920. Felipe Manterolaren argazkia.

Eleuterioren txabolearen mendeurrena

Egitaraua
Garagarriaren 9a, zapa-tua

09:00etan, Zeanuriko plazan alkartu eta Egiriñaora ibilal-dia, San Justotik gora. Gura dauana joan daiteke.

Egiriñaon (Gorbeia):
12:00etan, alkarretaratzea Eleuterioren txabolearen au-rrean.

Eleuteriori eta berak sor-tutako aterpeari buruzko oroitzapen ekitaldia. Plaka oroigarriaren inaugu-razinoa. *Eleuterioren txabolan* danon artean abestu. Barauskarria.

13:00etan, ekitaldiaren amaieraa eta Zeanuriko pla-zara itzuli.

Antolatzailea: Zeanuriko Udala.

Laguntzaileak: Joko Alai alkar-tea, Bizkaiko Foru Aldundia, Gorbeialde Landa Garapen Alkartea, Bizkako Mendi Fe-derakundea, Arnotegi Mendi Taldea, Bilbao Alpino Club eta Juventus S. D.



Gure ikastetxeak
 Euskalduna
 kalidadezkoa
 herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
 Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
 Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
 Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
 Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
 Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
 Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
 Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
 Tel.: 94 673 60 22 Igorre



AZEK Kadete mailako lasterketea antolatu dau sankristobaletan

Erredakzioa

Partaideak Igorretik urten, Zeanuriraino joan, bueltau, eta Igorretik barrira Zeanurira joango dira, gero, Karpon, ezkerretara jo Igorrera bueltetako eta hortik San Kristobalera igongo dira. AZEko parte hartuko dabena kadeteak, Arteako

Oihan Agirre, Igorreko Markel Ealo, Dimako Txaber Lazpita eta Lemoako Aimar Elorriaga dira.

Mikel Zarrabeitia eta Jose Ramon Uriarte ziklista ezagun izandakoek prestatu ditue euren entrenamentuak, eskolako beste guztienak lez. Entrenetako "asteen bitan: eguaztenetan eta zapatue-

Ekain Aurrekoetxeak irabazi dau Arratiako I. Goitibehera Txapelketea

Erredakzioa

Zeanurin bagilaren 25ean eta Diman 26an jokaturako lasterketetan bera izan zan helmugara azkarren heldu zan arratiarra. Euskal Inertzia Kopako sailkapen orokorrean barriz, hirugarren postuan dago Dimako pilotua.

Bagilaren atzen astegoienean jokatu ziran, Zeanuri eta Diman, Euskal Inertzia Kopako lasterketa bi. Lasterketak Sputnik Koparako be izan ziran puntuagarriak eta gainera, pilotu eta kopilotu arratzen artean jokatu zan Arratiako I. Goitibehera Txapelketea. Euriak baldintzatu ebazan jardunaldi biak, baina halanda be, ikusleak kamino bazterretan pilatu ziran abidura probeagaz gozatzeko. Unai Loyola pilotuak BEGURI adierazo deusanez, "auzotarrak ondo baino hobeto portau" ziran eta eskerrak

emon deutzaz Zeanuri eta Dimako
Udalei, lasterketak antolatzeagaitik.

Lasterketa bietako sailkapen orokorrean, Felix Delgado Garcia izan zan jaun eta jaube, Zeanurin 01:19 eta Diman 01:39ko denporeagaz. Ostetik, Karlos Xabier Solis heldu zan Zeanurin eta Jorge Perez Revuelta Diman. Hirugarren postua barriz, Ekain Aurrekoetxea dimoztarrak lortu eban proba bietan. Batean, Aitor Yurrebaso izan zan bere kopilotua, eta Inhar Altuna bestean.

Holan, pilotu arratiarren sailkapena honakoa izan da, hurrengo hurrengo: Ekain Aurrekoetxea, Axular Solaguren, Eki Gaskon, Hodei Garate, Inhar Altuna, Amets Bilbao, Javi Etxeberria eta Sabin Iñaki Bilbao. Kopilotuen sailkapenean barriz, Aitor Yurrebaso eta Inhar Altuna lehen postuan geratu dira bardinguta, eta ostetik, Anton Alonso.



tan, karrerarik ez badago" batzean dirala dino Zarrabeitiak. Entrenatzaile lanak horretarako formazinoa jaso daben gurasoek egiten ditue.

San Kristobal

Urtero, Igorreko jaietan, antolatu izan da Kadete eta Junior mailako lasterketea, baina aurreko Federazioak ez dauka baimendu beste lasterketa batzuk bebaezalako azaldu deitso BEGITU Leire Aurrekoetxea AZEko presidentek. Hori dala-ta, San Kristobalekoa antolatu dabe "ilusino handiz". Izan be, San Kristobal sano lotuta dago alkartearen sorrera eta historiagaz.

Igorreko Ziklo-krosagaz bate-ra sortu zan ziklista alkartea eta 1979 eta 1993 bitartean, San Kristobaleko zirkuituan jokatu zan ziklo-krosa. Murias talde profesionala be auzoan aurkeztu zan.

Gainera, auzokoen partaidetzea handia izan da beti bai alkartean, bai txirindularitza eskolan, baita ziklo-krosa antolatuten be.

Frantziako Tourraren Eguna
Igorren

Bizkaian 18 herri aukeratu ditue 2023an, Frantziako Tourraren Eguna antolatuteko eta euretako bat lgorre da. "Tourrari buruzko historia, Bizkaiko txirindulariek izan daben papela Tourrean, eta pistak egongo dira, gondo dabizanak praktiketako eta ikasi gura dabenek ikasteko. Tourreko denda bat be egongo da. Frantziako Tourraren zatitxo bat herrira ekarte lez izango da" dino Aurrekoetxeak.

Lasterketearen aurretiko atzen
Tour Eguna izango da Igorrekoa.

Bilbok emongo deutso hasikerea 2023ko Tourrari eta hurrengo bi etapek euskal lurraldea zeharkatuko dabe.

Diman jokatuko da Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea hilaren 2an

Erredakzioa

Garagarilaren 2an, arrastiko 18:00etan, Dimako jaien egitarauaren barruan jokatu da Dimako frontoian Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea. Bertan, Gtxoko Beñat Amade eta Dimako Jon Loiola neurtuko dira. Jose Martin Bustinza "Tubi" Bizkaiko Txapeldunak ezin izango dau parte hartu, lesino bat dala-ta.

45 kiloko fardoa minutu bitan
nok gehiagotan altxatzean dago
erronkea. Markarik onena Tubik
dauka 25 jasoaldigaz.



MENDIA

Europako Txapelketea eta Munduko Kopako skyrace bat jokatuko ditu garagarrilean Onditz Iturbek

Zita garrantzitsu bi ditu Onditz Iturbe atleta igorretarrak. Garagarriaren hasieran, Atletismoko Federazioak La Palman antolatutako Europako Txapelketan izango da eta bertan modalidade bitan lehiatuko da: lineakoan eta igoeran, hain zuzen be.

Erredakzioa

Hilaren amaieran, Comapedrosan (Andorra) Munduko Kopako mendi lasterketa baten, Skyrace, proba baten hartuko dau parte. **Garagarriaren hasieran, Europako Txapelketan izango zara.** Garagarriaren 1, 2 eta 3an, Atletismo Federazioak antolatutako Europako Txapelketea jokatu da La Palman. Nik hiru probetatik bitan hartuko dot parte. Garagarriaren 1eko igoeran, *uphill* deitzean deutsien proban; eta gero, domekan, lineakoan. Espainiako selekzioagaz noa.

Uphill edo igoera deitzean deutsie eta ez bertikala, bertikala izateko 5 kilometrotik behera izan behar ditualako, eta honek 5 kilometroak pasau egiten dauz.

Bestea, atletismoa linean, normala, *up and down* be deitzean dana. Laburra da 18 kilometro inguru. Zapatuan badago maratoni bat baina ni hori ez noa egiten.

Europako Txapelketan parte hartuko dozu Espainiako Kilometro Bertikaleko txapel-duna zaralako?

Bai. Espainiako txapeldun eta txapeldunordeek, Albaceten eta Bergako bertikalean, eukien Europako Txapelketarako plazea. Nik Albaceten bigarren egin neban, holan lineakorako pasea lortuz, eta Bergan irabazi nebanez, bertikalerako pasea be lortu neban. Aukerea emon deuste beraz, bietan parte hartzeako eta baiezkua emon dot. Behin joanda, aprobetxau egin behar da, harri bategaz txori bi.

Ze espektatibaaz zoaz? Kilometro bertikaleko podium guztietan izaten zara...

Ba ez pentsau! bertikalak ez do-daz prestatuten! Entrenetan dot linearako, bertikalerako ez, baina igoeretan ondo moldatuten nazanez ba azkenaldian ondo nabil. Espektatibei jagokienean, nire asmoa da esperientzia bizi eta hortik ikastea. Tren batzuk behin baino ez dira pasetan eta uste dot oin dala momentua, eta ebatzi dot tren horretara igotea



bere ondorio guztiakaz.

Espainiako kilometro bertikaleko txapelduna zara eta aspal-di honetan podium guztietan zagoz. Esan lei urte askotako lan gogorraren emaitzak zabilazala jasoten oin?

Bai, egia esan, badira pare bat denporaldi nahiko polito nabilala. Krosa amaitu eta mendira sartu nazanetik, egia da mendiko entrenamentuetan gehiago zentrau nazala, eta azkenean lan hori badago urteten. Gorputza ondo erantzuten dabil, ni disfrutetan nabil eta apurtxo bat danak lagunduta inozko emaitzarik onenak lortzean nabil. Eta pozik. Egia da be bai, atzean lana dagoala, esfortzua dagoala. Nik inoz ez dot hori ukatu, asko entrenetan dodalako, baina gogotsu eta pozik entrenetan dot. Niretzat entrenetea ez da arazoa.

Munduko Kopako mendi lasterketea garagarri amaieran eta gero atsedenaldia?

Bai, garagarri amaierakoa jomugan daukat. Comapedrosan (Andorra) da, Skyrunning Munduko Kopako proba bat. Gorputzak holan segidu ezker, aurrera egiten segiduko dot, eta gero ikusiko da. Gero, geroak. Beraz, garagarriaren amaiera arte eusteko asmoa daukat.

Abuztuan ez dot konpetiduko. Lasterketak badagoz baina asmoa ez da konpetidutea eta urri lehenengoan bueltatuko naz.

TAEKWONDOA

Lisette Cintado zeberioztarrak brontzea lortu dau Sofian jokatuako taekwondoko jokoetan

Erredakzioa

Multi European Taekwondo Games izenpean Sofian (Bulgaria) jokatu zan txapelketea bagilaren 2 eta 8aren bitartean. Barakaldoko Azarri klubeko Lisette Cintado, 68 kilo baino gitxiagoko Junior kategorian, brontzea irabazi eban. Lena Reyesek irabazi eban txapelketea eta Polina Kucheriavak egin eban bigarren.

Sabore gazi-gozoa izan dau brontzeak zeberioztarrarentzat. Izan be, Munduko Txapelketara sailkatzeko helburuagaz joan zan eta hori ez eban lortu. Txartela, Lena Reyesentzat izan zan-eta. Ha-ta guzti be, Sofian egindakoagaz pozik dago Cintado "txapelketan ondo joan jatan. Nazinoarteko txapelketea zan eta hemen jokatu ahal dan edozein txapelketa baino maila handiagoa eskatzen dau horrek. Bai fisikoki bai buru aldetik sano txapelketa ona izan zan" adierazo deutso BEGITU taekwondolariak.

Denporaldia amaituta

Brontze honegaz amaitu dau Cintadok denporaldia eta Junior mailatik Nagusietara pasauko da datorren

denporaldian. Junior mailako atzen txapelketea abenduan izango dau, baina ordurako, Sub21 eta Nagusien kategorietan be neurtuko da.



PELOTEA

Amaia Aldai dimoztarrak San Fermin Torneoko finala jokatu dau

Erredakzioa

Amaia Aldai eta Ane Mendiburu San Fermin Torneoko finalera sailkatu ziran, bagilaren 26an Tafallan Larrarte eta Erasuner 22-7 irabazi ostean. Finala, hilaren 9an jokatu da Labrit pelotalekuan.

Aldai nagusi izan zan jokoan, aurkariak mobidu arazo eta tantoak bikain amaituten. Tafallako finalurrekoan, min handia egin eban sakeagaz. Pelotakada oso



Ane Mendiburu eta Amaia Aldai.

luzeak botata, atzelari aurkariak 9. koadrotik erantzun behar izan eban. Mendiburu bikotekidea be, oso zuzen ibili zan, bere partidua eginaz eta atzean eutsiz.

Laboral Kutxa Udako Torneoa

Dimakoak Laboral Kutxa Udako Torneoa jokatu dau, Andrea Capellan bikotekide dauala. Lehenengo partidua garagarriaren 24an jokatu dabe Arizabalaga eta Osesen kontra Lekeition.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

UDA KULTURALA

Kaleko ikuskizunak
Igorreko Uda Kulturalean

Erredakzinoa

Uda Kulturalaren barruan, edade guztietako jentearentzako *Mute* zirku ikuskizuna dakar Orain-Bi konpainiak Igorreko Goiko plazako frontoira garagarilaren 15ean, 20:00etan. Garagarilaren 21ean, 20:00etan, *Gora bihotzak!* umeentzako ikuskizuna eskainiko dau Eidabe konpainiak eskolako patioan. Eguraldi txarra egin ezke-ro, Kultur Etxean izango da.

Mutek, umorea, poesia eta sorpresea erabiliz, aldatzeko premi-

naz egiten dau berba, berba bari-rik. Euskadiko ikuskizun onenari saria irabazi eban 2022ko Leioako Umore Azokan. Mutazinoa gai hartuta, akrobazien bidez, "zirku numeroak berbiztu bitartean, gu batera mututzen ginala sentidutearen magia" azalduten dabe *Mute* ikuskizunean.

Gora bihotzak! lana bizitza askearen aldarrikapen alaia da eta bildurretatik libre biziteko konbitea egiten deutse umeei. Poza zabalduteko, kantu eta jantzez beteta dago ikuskizuna.



LEHIAKETE

Areatzako Jaietako Kartel
Lehiaketea zabalik dago

Erredakzinoa

Kartelak aurkezteko epea garagarilaren 15ean, ordu bietan amaituko da. Areatzako Jaiak 2022, Abuztuaren 23tik 30era testua derrigor agertu behar da. Lanak (60 cmx40 cm) Areatzako udaletxean aurkeztu behar dira sinatu barik formatu digitalean eta paperean DINA4 tamainuan.

Kartel bakotxagaz batera, gutunazal baten, egilearen datuak sartuko dira. Irabazleak, 150 euro jasoko ditu saritzat.

Epaimahaiak garagarilaren 15ean berean jakinarazoko dau irabazlea zein dan. Jaietako kartel irabazlea argitaratzeko konpromisoa hartzean dau Udalak eta jaietako liburuxkan be agertuko da.

LEHIAKETE

Zeberioko
Jaletako Kartel
Lehiaketea
martxan dago

Erredakzinoa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak jaletako kartel lehiaketa bi ipini dabez martxan. Bata, orokorra eta bestea, umeentzako jarduerak iragartzekoa. Atzen honetan, 14 urte artekoek hartu daikie parte. Lanok abuztuaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean.

Umeentzako ekintzen kartelean, Sandoniak 2022 Umeen ekintzak izango da derrigorrezko testua. Kartel orokorrean barriz, Zeberioko Sandoniak 2022, Irailaren 1etik 4ra. Sariei jagokie-nean, umeen kartel lehiaketan, parte hartzaile guztiek oparitxo bana jasoko dabe. Jaletako kartel lehiaketako irabazleak 70 euro jasoko ditu saritzat eta bigarrenak 30 euro.

Bardintasunerantz Bideratuz programearen barruan, epaimahaiak, kartelaren edukia eta gaia, originaltasuna eta andra eta gizonen artean bazterkeria alboratu eta bardintasuna bultzatzen dabezan egoerak sustatzea balorauko dau.

AREATZA UDAN

Folklore jaialdia eta udatiarren bizimodua
berreskuratuko ditue Areatzan

Erredakzinoa

Ikuskizun bat ikusi, landa baten afaldu eta ostan kontzertu batez disfrutetako aukerea egongo da hileon Areatzan. Areatza Udan ekimenak, clown ikuskizuna eta Puerto Vaiven taldeagaz kontzertua Karpoko landan antolatu dau garagarilaren 7rako eta antzezlan eta La Mareren kontzertua 28rako Bainuetxe ondoko landan. Hilaren 24an, Folklore Bizian jaialdian, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldea, Gran Ballet Argentino eta Sri Lankako Sama Ensemble Folklorique National taldeek euren folkloreko jantzen erakustaldia egingo dabe plazan.

Galdakaoko Andra Mari antolatuten dau Folklore Bizian jaialdia mundu zabaleko jantza taldeak ekarriz. Aurten, Argentina eta Sri Lankako taldeak dira etortekoak Areatzako plazan jantzan egite-ra. Argentinako taldeak 60 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka. Jantza tradizionalak erreskatau eta, keinuak eta adierazpenak garrantzia handia hartzean daben koreografia originalak eskaintzen ditu. Sri Lankako folklorea be ekarriko dau Areatzara Sama taldeak,

"planetako irla misteriotuene-tako batetik datorrena".

Kanpoan afaldu

Ikuskizun bat ikusi, etxetik eroan-dakoa landa baten afaldu eta afalostean kontzertua entzuteko aukerea dakar Areatza Udan ekimenak garagarilean bitan.

Hilaren 7an, 20:00etan Karpoko landan, Bapatean Zirkoren *Adabaki* clown ikuskizuna egongo da. Ikuskizun honetan, pailazo bik, egunkarien, peloten, maleten eta adabakien artean, sorpresaz eta umorez betetako mundu batera eroango dabe publikoa. Afalostean, 22:00etan, Puerto Vaiven taldeak ipiniko dau musikea. Puerto Vaiven, Espainia, Mexiko,

Venezuela eta Txileko musikariek osotutako proiektua da. Musika tradizionalaren erritmo barritauakaz, han eta hemengo istorioak eskaintzen dabez.

Plana errepetiduteko aukerea egongo da 28an. Oingoan, Bainuetxe ondoko landan. Ikuskizuna, Trakamatrakaren *Matraka Culinary Center*, umorez betetako musika ikuskizuna da, eguneroko, janaria tartean, edo berrerabilitako elementuak erabilten daua-na. Afalostean, La Marek ipiniko dau musikea. La Mare, Madrilen bizi dan Cadizeko kantautore bat da. Bere atzen diskoak *Miraíz* izenekoak, erritmo fusinoa, freskotasuna eta iberoamerikar zuztarreko musikea dakar.



LITERATUREA

Aratz Zabala igorreztarrek
Bizkaldatz Txikia saria irabazi dau

Erredakzinoa

Aratz Zabalak, Arratia Institutuko DBH4ko ikasleak, bere kategoriako gaztelaniazko Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaldatz Txikia irabazi dau. Bagilaren 20an jaso eban saria Foru Liburutegian Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol diputaduen eskutik.

Pozik eta sinistu ezinik jaso eban saria Zabalak. "Sano urduri nengoan. Han egonda be ezin neban sinistu irabazi iza-na" azaldu deutso BEGITU. Izan be, Bizkaldatz Txikia Haur eta Gazteentzako Literatur Sariaren zortzigarren edizino honetan Bizkaiko ikastetxeetako 16 urte arteko 75 ume eta gaztek hartu dabe parte.

Lehiaketan, partaideek, kontakizun baten hasikereari segidea emon behar deutsie, kontakizuna garatu eta amaierara emonda. Euskerazko modalidadean, Idoia Barrondo Etxebesteren *Abrakadabrari*, eta gaztelaniazkoan, Andoni Abenójar Martínez de Eulateren *El*

parque Mowg kontakizunaren hasikereari, hain zuzen be.

Beste irabazleak

Euskerazko sariak, Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoko Jone Urangak, Lekeitioko Iturriotz Ikastetxeko Nadir Barainak eta Bilboko Begoñazpi Ikastolako Irene Gomezek irabazi dabez.

Gaztelaniazko kontakizunei jagokienez, Santurtzikoko Santa Eulalia Ikastetxea-Patronatuko Gontzal Díaz, Bilboko Berrio-Otxoa Ikastetxeko Sandra Rodriguez eta Igorreko Arratia Institutuko Joanes Aratz Zabala izan dira saridunak.



LEHIAKETE

Jaletako Kartel
Lehiaketea
ipini dau
martxan
Zeanurik

Erredakzinoa

Zeanurikoek parte hartu ahal dabe lehiaketan eta kategoria bi egongo dira: 14 urtera artekoa eta nagusia. Zeanuriko Andra Mari jaiek 2022, abuztuaren 13tik 16ra testua derrigor agertu behar da. Garagarilaren 11ra arte bialdu daitekez lanak harrera@zeanuri.eus helbidera edo paperean udaletxera eroan.

Sariak, umeentzako Athletic-eko ekipazino barria eta nagusientzako euskal produktuen otzara bat izango dira. Lan irabazlea jaletako kartelean eta jaiegitarauaren azalean agertuko da eta parte hartutako kartel guztiak ikusgai egongo dira herriko jaletan.

Lan irabazlearen egile eskubi-deak Zeanuriko Udalaren esku geratuko dira.

KONTZERTUA

Aberreh-ren
Joan-etorrian
diskoaren
aurkezpena
Lemoan



Erik Berganza "Abereh".

Erredakzinoa

Erik Berganza, Abereh izen artistikodun abeslaria, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean izango da garagarriaren 15ean, 20:30ean, *Joan-etorrian* bere azken diskoa aurkezten.

Erik Berganzak Hartzak Blues Band eta Estricalla taldeetan jo ostean, bere bakarkako bideari ekin eutsan, Abereh izena hartuta. 2016-2017 urteetan egindako zazpi kantuk osotuten dabe diskoa. Zarata eta burrunbatik al-denduta baina distorsinoa guztiz baztertu barik, rock edo grunge akustikoa jorratu dau Berganzak.

Zaunka datozen arin, Logela sessions, Laino eta belatz artean, Diane (Husker Du cover) eta *Joan-etorrian* albumek osotuten dabe bere diskografia.

LEHIAKETAK

Zeanuriko
Ortuen
I. Txapelketea

Erredakzinoa

Ortuetan egiten dan lana ikusi eta saritzeko helburuagaz, Udalak txapelketea ipini dau martxan. Garagarriaren 1etik abuztuaren 10era bitartean izango da eta denpora tarte horretan epaimahaikoak abisau barik pasauko dira ortuak ikusten. Andra Mari jaietan emongo dabe jakitera irabazlea zein dan.

Epaimahaikoek, ongarri naturalak edo biologikoak erabiltea, lurra ondo jorratuta eukitea, ortuak era tradizionalen landuak izatea, landare kopuru eta bariedadea, etxeko hazia erabiltea, garbi-ikuzia eta ortuaren antolamentua balorauko dabez. Sari bi egongo dira: lehenengo saria 200 eurokoa eta bigarren saria 100 eurokoa.

Zeanuri Loran

Zeanuri Loran Txapelketeak, segiduko dau garagarriaren 15era arte.

Epaimahaikoak, etxe edo pisuetako balkoiak ikusten, abisau barik pasauko dira. Balkoi eta eskilaren zainketa eta mantenimentua, originaltasuna, antolamentu eta lorakaz egindako konposizinoak, bariedade, kalidade eta loreen iraunkortasuna eta espazioen eta elementu osagarrien egoerea eukiko dabez kontuan.

BANDA

Areatzako Banda hilero
urtengo da kalejiran

Erredakzinoa

Bagilaren 19an egin eben lehenengo kalejirea eta Aritz Labrador zuzendariak sortutako *Areatza kalejira* martxea be aurkeztu eben.

Areatzako Banda hilero entzuteko aukerea egongo da oindik aurrera herriko kaleetan. Izan be, kalejirea egingo dabe hile bakoitzeko domeka goiz baten. "Helburua da herriagazko konexinoa berreskuratzea. Pandemian zehar etenaldi oso sakona izan dau bandeak eta nik uste, pandemiatik bueltan, konexino hori berrezartzea beharrezkoa dala" azaldu deutso BEGITURI bandarean zuzendariak. Ekimen hau, bandea herrian bizirik manteniduteko da.

Lehenengoa hileko hirugarren domekan izan bada be, asmoa atzen domekan egitea da, garagarriaren etenaldiaren ostean. Izan be, bandeak oporrak hartzean ditu garaga-

rrilean, jaiak abuztuaren diralako.

Ondarea sortzean

Lehenengo kalejiran Areatzako txoko guztietara heldu ziran 30 musikari inguruk osotutako bandea eta jenteak erantzun eban, kallean bandeari jarraituz. Zazpi pieza jo ebezan eta hilean-hilean pieza desbardinak joteko asmoa daukie. "Nire helburua da kalejira bako-txean gauza barriak entzutea. Ez bakarrik gauza barriak zerotik sortutakoak, baita Areatzan ohikoak ez diran doinuak be, nahiz eta beste herri batzuetan ohikoak izan".

Areatzako Bandaren oinarritzko errepertorio erdia hartu eta beste erdia barria zan. Baita, zuzendariak berak sortutako piezea be. "Nire proposamena da hile bako-txean pasakalle barri bat idaztea bandarentzat, herriko errepertorio propioa izateko eta herriko ondare bat sortzeako".



EUSKARALDIA

Entidadeek
Euskaraldian
izena emoteko
epea zabalik



Erredakzinoa

Arigune lez jarduteko, alkarte, establezimentu edo entidadeek, Euskaraldian parte hartzeako izena mon leikie www.euskaraldia.eus webgunean. Arigune lez izena emoteko baldintza bakarra dago, denpora guztian euskaldun bat egotea herritarrei arreta emoteko. Euskaraldia, zemendiaren 18tik abenduaren 2ra izango da.

Euskaraldiak euskerearen-tzako ariguneak indartu gura ditu hirugarren edizion honetan eta bai lehenengoz bai aurreko edizioetan parte hartu daben entidadeek emon edo barritau leikiez datuak parte hartzeako. Norbakoentzako izen emotea urri lehenengoaren 28an zabalduko da.

DUNBA

Zibermanagers proiektua eta Ending Project jardunaldiak

Julene Gomez, Elaia Mendiola, Jone Arriaga eta Aratz Zabala Arratia BHiko ikasleak

Julene Gomez, Aratz Zabala, Elaia Mendiola eta Jone Arriaga gara Arratia BHiko DBH4.ko ikasleak eta aurten burutu dogun proiektu baten barri emotera gatoz.

Kurso hasieran institutuko ikasle guztiok ziberbullying-aren inguruko formakuntza hartu genduan eta bolondresak eskatu ebezan Igorreko eskolako 6. mailako ikasleen zibermanagerak izateko.

15 boluntario agertu ginan eta arrastietan Interneteko arriskuen gainean ikasi genduan:

Fake News: guzurrezkoak diran barriak internet bidez zabaltzea.

Grooming: heldu batek adin txikikoei berba egitea sare soziales bitartez gazte bat izango balitz moduan. Askok biktimea manipuletan dabe.



Netiketa: Netiketa berbea Interneteko portaera orokorreko arau moltoari erreferentzia egiteko erabilten da, hau da, mundu errealeko etiketa arauak birtuale-ra egokitzea baino ez da.

Pribadutasuna: interneten gure pribadutasuna zaintzeko neurriak.

Ziberbullying: Persona bateri bullyinga egitea baina interneten bidez.

Informazino horregaz aurkezpen bat prestatu genduan eta eskolara joan ginan gaztetxoan aurrean aurkeztera. Helburuetako bat da, bihar-etzi arazoren bat badabe gugana etorri ahal izatea

laguntza eske.

Oso esperientzia aberasgarria izan zan eta asko ikasi genduan.

Bagilaren 21ean Bilboko La Bolsa eraikinean digitalizazioa eta bardinen arteko irakaskuntzari buruzko Ending Project jardunaldia izan zan. Bertan gure esperientzia azaltzera konbidatuak izan ginan Burgoseko eta Parlako (Madril) ikastetxeetako ikasleak batera.

Jardunaldiaren lehenengo zatian hezkuntzan adituak izan ziran: Nelida Zaitegi (Hezkuntza-aholkularia), Make Irigoyen (Hezkuntza Saileko aholkulari pedagogikoa), Elena Ayarza (Arartekoaren bulegokoa), Iñaki Karrera (EHUko irakaslea), Aitziber Mugarra (Zerbikas Fundazinoko lehendakaria) eta Maria Zalbidea (eten digitalean aditua).

Atsedenaldia eta gero ikastetxeetako esperientzien txanda izan zan. Esperientzia guztiak



komunean eukien metodologia: bardinen arteko irakaskuntzea, hau da, gazteek gaztetxoagoei edukiak erakustea.

Danok komentau genduan zein interesgarria izan dan erreferentziala izatea beste ikasle batzuentzako eta 60 personen aurrean jardunaldi batzuetan berba egitea.

Bestalde, gure aurkezpenak euskeraz egiterakoan arazo bategaz topau ginan: interneten ez dogu gure beharrianak asetzeko ikus-entzunezko materialik topau euskeraz. Badogu beste erronka bat.

Oin, merezidutako oporrak gozatutera goaz. Zuok be bardin eizue!

AGENDEA

GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU

Garagarriaren 3ra arte, San Pedro jaiak.
Hilaren 15era arte, 17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

03:30ean, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus gerezalekuan.

AREATZA
Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Garagarriaren 15era arte, herri udalekuak. Astebeteko txandak.
Bonodenda kanpaina bonuak amaitu arte.

Uda osoan zehar, Uda Gorbeian Marrazki Lehiaketea 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Marrazkiak bialdu *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidera.

Hile osoan, *Ibaialde* erakusketea ikusgai Parketxean.

Hilaren 15era arte, jaietako Kartel Lehiaketan lanak aurkezteko epea udaletxean.

ARRATIA
Arigune lez jarduteko, alkarre, establezimentu edo entidadeek, Euskaraldian parte hartzeako izen emotea zabalik *www.euskaraldia.eus* webgunean.

Abuztuaren 31ra arte, Pantailak Euskaraz Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Pantailak Euskarazen kamiseteta jantzita oporretako argazkia, Instagram, Twitter edo Facebookera igon @pantailakeus @pantailakeuskaraz #pantailakeuskaraz etiketatuz. Parte-hartzaileek sarien zozketan hartuko dabe parte.

ARTEA
Garagarriaren 1era arte udalekuak.

BEDIA
10:00etatik 12:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik garagarriaren 22ra arte.

DIMA
Garagarriaren 3ra arte, San Pedro jaiak.

IGORRE
08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

09:30etik 14:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

LEMOA
10:00etatik 14:00etara, garagarriaren 12ra arte, herri udalekuen lehenengo txandea HH3-LH6 umeentzako.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean. Garagarriaren 5etik aurrera, 11:00etatik 14:00etara.

UBIDE
Ubidestro Trail-en izena emoteko epea, *www.kronoak.com* webgunean.

ZEANURI
San Pedro jaiak Undurragan. Garagarriaren 3ra arte.

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus* helbidean. Gaia: Zeanuri.

Garagarriaren 15era arte, Zeanuri Loran Txapelketea.

Garagarriaren 1etik abuztuaren

10era Zeanuriko Ortuen I. Txapelketea.

Garagarriaren 23 eta 24an izango dan Zeanuriko mugetatik ibilaldirako izen emotea zabalik udaletxean.

Hilaren 11ra arte, jaietako Kartel Lehiaketan lanak aurkezteko epea udaletxean. Kategoria bi egongo dira 14 urte artekoa eta nagusiena.

ZEBERIO
Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

Garagarriaren 1era arte udaleku ibiltaria eta garagarriaren 8ra arte udaleku txikia eta herri udalekua.

11:00etatik 13:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Abuztuaren 5era arte, jaietako Kartel Lehiaketan eta umeen ekintzen Kartel Lehiaketan parte hartzeako lanak aurkeztu daitezke udaletxean.

GARAGARRILAK 2
ARANTZAZU

18:00etan, Mus Txapelketea Montero tabernan.

AREATZA
Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, animalien aztarnen bila Javi Fernandez laguntzeagaz. Gorbeia Parke animalia batzuk itxitako aztarnak aztertu dira ibilbide baten. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

Ospitalosteko jaiak. 12:00etan, mezea eta 20:00etan, parrilladea.

20:00etan, Confluence taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ZEANURI
11:00etan, Undurragako urtegiari bueltea Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo *www.basquemountains.eus* helbidean emon daiteke.



Zeanuriko mugetatik egun biko ibilaldia antolatu dabe

Garagarriaren 23an eta 24an izango da herriko mugetatik ibilaldia. Partaideak 08:00rak aldera batuko dira Zeanurin eta 25 kilometro inguru egingo ditue eguneko. Arrabako aterpean egingo dabe lo, bai-ta afaria eta hurrengo eguneko gosaria be. Izena udaletxean emon behar da. Joko Alaik antolatu dau ibilaldia, Kultur Batzordea eta Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz.

GARAGARRILAK 3
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 9ra arte, urtekerea, udako jarduera berezia. Arinsal, Alt de Comapedrosa (2.939 m); Malniu aterpea, Puigpedros (2.914 m); Cap del Rec aterpea, Tossa Plana de Lles/Pic de la Portelleta (2.904 m); Col de Portus, Madres (2.469 m) eta Bouillouses lakua, Carlit (2.921 m).

GARAGARRILAK 5
BEDIA

18:00etatik 18:30era, hilaren 13an Eleizalde Jubilatu eta Pentsionisten alkarreak eratutako Ordiziarako urtekerarako izen emotea. Eskoletan.

GARAGARRILAK 7
AREATZA

20:00etan, Bapatean Zirkoren *Adabaki* clown ikuskizuna; etxetik eroandako afaria eta 22:00etan kontzertua Puerto Vaiven taldeagaz. Karpoko landan. Areatza Udan.

GARAGARRILAK 8
IGORRE

Jaiak San Kristobalen 10era arte. 20:30ean, San Kristobal jaietako hasikerako txupina. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

GARAGARRILAK 9
BEDIA

Hilaren 16ra arte, Uda Gaztea bidaia. **DIMA**
Hilaren 14ra arte udalekuak Bernedon.

GARAGARRILAK 11
BEDIA

Udako ludotekea, Ludosport. 22ra arte.

GARAGARRILAK 12
DIMA

Hilaren 19ra arte, *Emakumeak museoa*n erakusketea plaza inguruan.

GARAGARRILAK 13
BEDIA

Eleizalde Jubilatu eta Pentsionisten alkartearen urtekerea Ordiziara.

GARAGARRILAK 15
IGORRE

20:00etan, *Mute* zirku ikuskizuna Goiko plazako frontoian. Uda Kulturala.

LEMOA
20:30ean, Abereh-ren *Joan-etorrian* diskoaren kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

GARAGARRILAK 16
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta, Deba-Zumaia ibilbidea.

LEMOA
Tallerreta eta Lemorietako jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

GARAGARRILAK 17
AREATZA

11:00etan, Areatzako Uribildua ezetuten. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo *www.basquemountains.eus* helbidean emon daiteke.

GARAGARRILAK 21
IGORRE

20:00etan, *Gora bihotzak!* umeentzako ikuskizuna Eidaberen eskutik eskolako patioan. Eguraldi txarra egin ezker, Kultur Etxean.

GARAGARRILAK 22
UBIDE

Madalena jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

GARAGARRILAK 23
LEMOA

Hilaren 25era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Superbagneres eski estazinoa-Espingo aterpea, Se Cirer (2.403

m); Espingo aterpea, EHT Quairat (3.060 m); Espingo aterpea-Peyragudes eski estazinoa, Horgada (2.964 m).

UBIDE
10:00etan, Ubideko antxinako kaltzadatik ibilbidea. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo *www.basquemountains.eus* helbidean emon daiteke.

GARAGARRILAK 24
AREATZA

20:30ean, Folklore bizian. Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldea, Gran Ballet Argentina eta Sama Sri Lankako Talde Folkloriko Nazionalaren kantza erakustaldia plazan. Areatza Udan programearen barruan.

GARAGARRILAK 28
AREATZA

20:00etan, Trakamatrakaren *Matraka Culinary Center* ikuskizuna; etxetik eroandako afaria; 22:00etan, La Mareren kontzertua. Areatza Udan programearen barruan.

LEMOA
San Inazio jaiak hilaren 31ra arte. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

GARAGARRILAK 30
DIMA

11:00etan, Iraunkortasuna bizitza tradizionalen. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo *www.basquemountains.eus* helbidean emon daiteke.

GARAGARRILAK 31
AREATZA

Gorbeia Parke Naturean San Inazio ospatuko da. Parketxeak gomendioak emongo ditu egun honetan jente asko hurbiltzen dalako Gorbeia.



Alzheimerrak jotako amari egindako poemak eta musikea entzungai egongo dira Lemoan

Mikel Etxaburu poeta ondarrutarraren *Ahaztu baino lehen, ama* (Pamiela) liburuan oinarrituta dago, *Oroitzen hondarrak nota txikietan* ikuskizuna eta musika, jantza eta irudiak be batzean ditu. Nerea Zu-loaga abeslari billaroztarra eta Izaskun del Cerro pianojoleak ipinten deutsie musikea ikuskizunari eta irudiak Yera Sanchezenak dira. Lemoako Kotxepin Kultur Etxean egongo da ikusgai, garagarriaren 2an 20:30ean.

Ordubete inguruko emonaldiak, giro intimoan, zahartzaroa, memoria eta desmemoria, bizitza eta heriotzea hartzean ditu gaitzat. Ama bizitzaren atzen fasean sartzerakoan hasi zan idazten liburua Etxaburu, oin dala lau bat urte, esperantza emoteko kantu bat da. Izan be, ikuskizunak, gai horreen gainera bizipenak konpartiduteko aukerea emoten dau.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

SALTZEAN DODAZ

Altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Telefonoa: 629 461 077.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN

Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka. 10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841 058 telefonoetara deitu edo rakelgoni@gmail.com helbidera idatzi.

SALTZEAN DODAZ

Ostalaritzako makineria eta altzariak saltzean dira: oilasko burruntzia, konbekzino labea eta prijiagailua. Ondo

zaindutako egurrezko zibua eta ume-aulkia oparitzen dira. Burdinola argiontzia be saltzean dodaz. Telefonoa: 620 276 471.

LANA

SUKALDARI BILA

Zaztaparrak-ekoak udaleku ibietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezker idatzi zaztaparrakudalekuitxiak@gmail.com-era.

LAN-BOLTSEA

Igorreko Guraso Elkarrekin lan-boltsea zabaldu dau. Edozein dala afizinoa: kirola, sukaldaritza... bialdu zure datuak gurasoelkarrea@igorrekoeskola.com helbidera izena emetoko.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

Agustin Kamiruaga (Dima)
Arantza Etxebarria (Bilbo)



2 Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Oritzen hondarrak nota txikietan poesia musikatu emonaldirako.

Asier Txarterina (Lemoa)
Uriburu Batzarra (Artea)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, beheko IGORRE

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheko Igorre (Bizkaia)

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Fax: 609-79-40-54

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu
eus

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

begitu
eus



815 JARRAITZAILE



243 JARRAITZAILE



2.102 LAGUN



begitu **20**
urte

**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2022an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.